

BALIO PROPOSAMENA

Gaur egungo gazte, ikasle eta baita ere umeek, egunerokoa ordenagailuei ematen dieten erabilera areagotuz doa. Ikastetxe askotan LH-tik aurrera ume bakoitzak ordenagailu propioa dauka. Hori dela eta, hauen segurtasuna eta bizi iraupena luzatzea bermatuko dugu proiektu honekin.



Gure karkasak, ideia berritzaile bat direla uste dugu, material aldetik, birziklatuak izan diren, ingurumena errespetatzen duten eta bertako enpresek ekoiztutako materialez eginik daudelako. Bestalde, diseinuaren aldetik, egungo ordenagailuen segurtasuna bermatzen dute, erakargarriak izatearen ideia baztertu gabe. Honez gain gure produktuaren prezioa ahalik eta merkeena izatera moldatuta dago, eskuragarritasun handiagoa izateko.

Beraz, gure bezeroek gure produktua erosita, ordenagailuak babestea lortuko dute. Diseinu pertsonalizatuak eskaintzen dizkiegu eta gainera ingurumena errespetatzen dituen materialez eginiko karkasak dira.